

UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASKETA BEKA ETA DIRU-LAGUNTZAK

2014-2015KO DEIALDIA: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren Agindua
EAEn administrazio-egoitza duten ikastetxeetan unibertsitatekoak ez diren ikasketak egiten dituzten ikasleentzat zuzenduak.

Eskatzeko epea eta aurkezteko tokia:

Ikastetxean: deialdia EHAAen argitaratzen denetik 15 eguneko epean.
Deialdian aipatutako beste edozein lekuan: deialdia EHAAen argitaratzen denetik hilabeteko epean.

Eskabide inprimakia:

Ikastetxeetan eta www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net (Bekak, laguntzak eta diru-laguntzak)

BEKA ETA DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAK ETA MOTAK

Ikasmaterialetarako: diru-laguntza hau liburuak erostera zuzenduta dago.

| | |
|--|-------|
| Haur Hezkuntza (2. zikloa) | 78 € |
| Ikastetxe Publikoetako Lehen Hezkuntzako lehen eta hirugarren zikloa | 38 € |
| Ikastetxe Publikoetako Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa | 50 € |
| Lehen Hezkuntza | 117 € |
| Ikastetxe Publikoetako (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren maila) | 60 € |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza | 159 € |
| Goi-Mailako Heziketa-zikloak | 226 € |
| Gainerako ikasmak | 202 € |

Bazkariak ordaintzeko: etxetik kanpo bazkaldu behar duten ikasleentzat, (Hezkuntza berezi, Haur Hezkuntzako 1. zikloko bi urteko gela, Haur Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoentzat).

Diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa 712 €

Kuota: Haur Hezkuntzako 1. zikloko eskola-kuota ordaintzen laguntzeko. 0 eta urte 1eko haurrentzat. Diru-laguntza, gehienez ere, hileko 90 € izango da.

Ikasketak ordaintzeko: ikasketak ordaintzen laguntzeko. Diru-laguntza hau bakarrik emango zaie ikastetxe pribatuetaiko bi urteko gelan eta Zatikako Hezkuntza Hitzarmeneko mailetan badaude.

| | |
|---|-------|
| Haur Hezkuntzako 1. zikloko bi urteko gela | 200 € |
| Heziketa-zikloak | 590 € |
| Gainerako mailak, udal musika ikastegietan emandakoak barne | 295 € |

Bidaiak ordaintzeko: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko, Hezkuntza Bereziko, Musikako eta Dantzako ikasleentzat, ikastetxera joateko gastuetan laguntzeko, ikaslearen helbidea ikastetxetik 5km. edo gehiagora bada eta joan-etorrietarako diruz lagundutako garraioa erabiltzen ez bada. Kontuan izango da hurbilago beste ikastetxerik dagoen ala ez.

| | |
|------------------------------|-------|
| 5etik - 10 Kmra.: | 192 € |
| 11tik - 30 Kmra.: | 385 € |
| 31tik - 50 Kmra.: | 762 € |
| 50 Km. baino gehiago.: | 993 € |

Egoitza ordaintzeko: familiaren etxebizitzatik ikastetxera 50 km. baino gehiago badaude eta ikasleak etxetik kanpo bizi behar badu.

| | |
|---|---------|
| Heziketa-zikloak (2.000 ordutik beherakoak) | 2.969 € |
| Gainerako ikasmak | 2.531 € |

ADINARI BURUZKO BALDINTZAK

- Adin muga 23 urtekoa izango da. 2015-1-1 baino lehen, ikasleek ezin izango dute 23 urte beteta izan.
- Hezkuntza Bereziko ikasleentzat, adin-muga, edozein kasuan, 2015-1-1ean 21 urtekoa izango da.

IKASKETA-BALDINTZAK

- Musika eta Dantzan, batxilergoetan eta heziketa-zikloetan matrikulatuta dauden ikasleek ez dute ikasturtea errepikatuko.
- Goi-mailako Heziketa Zikloko bigarren ikasmak ikasleek 2013-2014 ikasmakiko %80 gaindituta izan behar dute.
- Gainerako ikasleak bakarrik egiaztatuta behar dute 2014-2015 ikasturtean matrikulatuta daudela.

Beka ez unibertsitarioak

EKONOMIA-BALDINTZAK (2013 URTEA)

Ordare-mugak

- Hiri finkak:** 42.500 € (ohizko etxebizitza salbu).
- Landa finkak:** 13.000 € familiaren kide konputagarri bakoitzeko.
- Balore higigarriak:** 1.958 € etekinen muga.
- Jarduera ekonomikoak:** 169.470 € arteko fakturazio bolumena.

Gainditu ezin diren errenta-mugak (€) :

| FAMILIAKO KIDEAK GUZTIRA | 1. ERRENTA-MUGA | 2. ERRENTA-MUGA | 3. ERRENTA-MUGA |
|-----------------------------|-----------------|-----------------|-----------------|
| 1 | 8.143 | 10.668 | 14.826 |
| 2 | 13.350 | 17.377 | 25.308 |
| 3 | 17.567 | 22.820 | 34.352 |
| 4 | 20.201 | 27.069 | 40.796 |
| 5 | 23.232 | 30.717 | 45.598 |
| 6 | 26.717 | 34.241 | 49.224 |
| 7 | 30.724 | 37.576 | 52.810 |
| 8 | 35.333 | 40.882 | 56.380 |
| +1 | +3.500 | +3.282 | +3.562 |

- Haur Hezkuntza 1. zikloko ikasmak, familia errentak ezin izango du gainditu 1. errenta-muga.

- Haur Hezkuntza 2. zikloko ikasmak, familia errentak ezin izango du gainditu 2. errenta-muga. - Gainerako ikasmak:

* Ikasmateriales osagaia jasotzeko, familia errentak ezin izango du gainditu 3. errenta-muga.

* Jangela, ikasketa, Garraio eta Egoitzaren osagaiak jasotzeko, familia errentak ezin izango du gainditu 2. errenta-muga.

FAMILIA ERRENTAREN KALKULUA:

ZERGA OINARRI OROKORRA + AURREZKIAREN ZERGA OINARRIA - KUOTA LIKIDOA

*PFEZen menpean ez dauden diru-sarrerak edo salbuetsiak direnak (km.-ordaina, sariak eta abar...) ere kontuan hartzen dira.

Aplika daitezkeen kenkariak :

- Familiaren errenta garbiaren %20a honako kasu hauetan:
 - Eskatzailea guraso bakarreko familia batean seme edo alaba denean diru iturri bakarra besteren konturako lana edo bere kasuan jasotako pentsioak izatekotan.
 - Eskatzailea umezurtz denean eta umezurtz pentsioa diru iturri bakarra denean, edo beste familia unitate baten menpe dagoenean.
- Sarreraren %50a, kenkari hau kide kontagarri guztiei aplikatu dakieke, familia buruari eta bere ezkontideari izan ezik.
- 500 € etxe berean bizi den seme-alabako, eskatzailea barne, maila orokorreko familia ugaria denean; eta 765 € maila bereziko denean.
- 1.811 € legez aitortutako ezintasuna duen kide konputagarri bakoitzeko, kenkari hau 2.881€ izango da ezintasuna %65koa edo gehiagokoa bada, eta 4.000 € eskatzaileak %33 eta %65 bitarteko ezintasuna izanik mugikortasun murriztuko gabezi egoeran dagoenean edo %65eko edo gehiagoko ezintasuna duenean.
- 1.176 € unibertsitate-ikasketak egiten ari den eta etxetik kanpora bizi den seme-alabako.

Agiri bidez egiaztatuta ezean, ez dira kontuan hartuko egoera horiek.